



Artearekin liluratutako maisua aren lanen aurrean



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorren tratamendua





KONDIA

Likidazioa Stock AMAIERA

7 URTEKO GARANTIA

4 Unit.



**KUGA
TREND +
20.900€**

KUGA Trend+ 1.5
ECOBOOST 120CV

4 Unit.



**TOURNEO
CONNECT
TITANIUM
18.900€**

TOURNEO CONNECT
TITANIUM 1.5 TDCI (120CV)

3 Unit.



**C-MAX
TREND +
16.900€**

C-MAX TREND+ 1.0
ECOBOOST 125CV

2 Unit.



**S-MAX
TITANIUM
27.900€**

S-MAX TITANIUM
2.0TDCI 150CV

5 Unit.



**FOCUS
TREND +
14.900€**

FOCUS 1.0 TREND+
ECOBOOST 125CV

5 Unit.



**FIESTA
TREND +
10.900€**

FIESTA 5 ATE
TREND+ 1.1(85CV)

5 Unit.



**Nuevo KA
ESSENTIAL
8.900€**

KA+
1.19 TI-VCT 70CV

ZURE KONTZESIONARIO
OFIZIALA

www.concesionariofordkondia.com

FORD KONDIA
Otaola Etorb., 22
EIBAR T. 943 202 091

ZIORLA AUTOAK
Santamaña Auzoa, 19
IURRETA T. 946 815 569

Eskaintzak BEZ, promozio-
deskontua eta FCE Bank, plc SE
bidez finantziatzeagatik deskontua
hartzen ditu barne. Eskaintza
baliagarria 2017/12/31ra arte edo
stock-a agortu arte.

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarteak.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Kareaga familia

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– San Andres bezperako jokabide onartezina gaztetxian –

Ez da lehen aldixa izan, baiña aurtengo San Andresetan gertatutakua oso larrixa pentsatzen jaku eta salatzea nahi dogu. JHH Jai Batzordetik azken urtietan egindakuari jarraituz, San Andres bezperan herri afarixa antolatu genduan gaztetxian.

Autogestiñuan oinarrituz, herritik eta herriandako egiten dogu lan eta helburu argiak dakaguz: gure jaixak euskaldunak, parekidiak, parte hartzaillak eta herrikoiak billakatzia. Horretarako, herrixan ekintza desbardiñak antolatzen dittugu eta bertatik etaratako diruarekin finantziatzen dittugu etorriko diran hurrengo jaixak. San Andresetan be holan izaten da.

Lagun artian, jai giruan eta konfiantzazko gune batian ospatu nahi genduan gaba eta, hori holan izateko ahalegindu bagiñan be, beste batzuk hori zapuzteko prest be egon ziran. Gaztetxian, gaba hartan gutariko askok, hitzezko erasuak, errespetu faltak eta zikinkerixak jasan bihar izan genduaz, beste, eta gaba bertan behera lagatzeko hau-tua egin genduan egoeriaren larritasunarengaitik.

Ez gagoz holako jarrerak jasateko eta onartzeko prest, ez gaztetxian, ez herrixan. Iñoiz baiño indartsuago jarraituko dogu biharrian, eragille desbardiñen inplikaziñuari eta alkarlanari esker.

JHH, Ernai, Nalua eta Eibarko Gaztetxia

– Altzubarren frontoiaren egoera negargarria –

Hainbat erorketa edota ezbehar gertatu ostian, Altzubarren frontoiko erabiltzaillak garanok, eguraldi txarra dagan egunetan, kirolguniak dakan egoera negargarria salatu nahi dogu. Esandako moduan, eguraldi txarra dagan egunetan arazuak sortzen dira frontoian, batez be itogin asko agertzen diralako lurrian. Esan biharra dakagu, adierazpen honekin, instalaziñua hobetziatz gain, etorkizun-

nian izan geinkiazan lesiño edota susto larrixagoren bat ekiditzi nahi dogula.

Horrez gain, jakin badakigu Altzubarren frontoiaz gain, Eibarko beste hainbat frontoi egoera berdiñan duguazela: Amañako frontoia, Iturburukua... batzuk aittatzarren. Arestixan esandako guztiagaittik udalak esku hartzia aldarrikatzen dogu.

Eibarko palarixak

– Eibarko gauak eta mugikorak –

Eibarko gaueko aisiaren ostalarien taldeak, azaroaren 25etik 26rako gauean gure hirian izandako gertaera tamalgarriaren aurrean, honako hau adierazi nahi dio iritzi publikoari:

- 1.- Izandako gertaerak salatu eta gaitzesten ditugu, baita hori eragin zuten arazoak ere. Emakumearengana errespetuak gure elkarbizitzaren oinarrietako bat eta guztiok babestu eta defendatu behar dugun balorea izan behar du. Sektore bezala, edozein gatazka konpontzeko indarkeria erabiltzearen aurka gaude.
- 2.- Pertsona asko elkartzan direnean, gure hirian asteburuetan gertatzen den bezala, ez dago zantalzarik desiratzen ez diren egoerak gertatu daitezkeela, baina (berriro ere adierazten dugu) horiek gertaera isolatuak dira. Hala ere, gertakizun horiek ezin ditugu alde batera utzi; alderantziz, salatu behar ditugu eta elkarlanean aritu horiek ekiditeko. Zentzu horretan, talde bezala egiten dugun lanarekin batera, agintarien eta erakunde eskudunen esanera jartzen gara hiriak duen benetako

aisiaren irudia eta festa giroa zikindu dezakeen edozein istilu ahalik eta gutxien igarri dadin.

- 3.- Halaber, salatu nahi dugu komunikabideetan eta sare sozialetan gertakariak izan duen oihartzuna neurritz kanpokoak izan dela, gertaerak hiru minutu eskas iraun baitzuen eta, gainera, zorionez, ez zen izan kalterik, ez materialik, ez pertsonalik. Uste dugu, kolektibo gisa, neurrigabeko zarata mediatiko horrek oso irudi txarra ematen duela Eibarko gaueko giroari buruz, eta ez daukala zerikusirik errealitatearekin. Bertakoak eta kanpokoak irtetzen dira Eibarren gaueko aisialdiaz gozatzera, eta urteetan aisialdi horren ezaugarri nagusia izan da bere jai, tolerantzia-, bake- eta integrazio-giroa. Eta horixe da, hain zuzen ere, eibartar guztiok harrotzen gaituena.
- 4.- Lerro hauen bitartez, gure bizilagunak animatzen ditugu, baita gure hirira etortzen den edozein lagun ere, Eibarko gauaz -betidanik dibertigarria, jasanbera eta baketsua izan dena- gozatzera jarraitzea.

Eibarko gaueko aisiaren ostalariak

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MAILLATU. - Zerbaiti, kolpeen baten eraginez, sakonunea egin. "Ontziterixa guztia maillatuta dauka, hainbeste urteko erabilixagaz".

Fruta alperrik galtzea kolpeen eraginez. "Hau sagarra maillatuta dago eta hobe erreta ipintzen badogu".



IÑAKI UGARTEBURU

Eskola Kirola. Ereduaren berrikuspena

Asko hitz egiten da Eskola Kirolaren inguruan, 25 urte bete direlako Gipuzkoako eredu martxan jarri zenetik. Foru Aldundiak honako helburu hau planteatu zuen: eskola-adineko haur guztiak kirola egiteko aukera izan zezaten lortzea. Egun Gipuzkoako haurren %80ak parte hartzen du programan, ez dira guztiak eta hobetzeko aukera dago, baina asko dira.

Beste hainbat helburu ere planteatu ziren: kirol guztiak guztiontzako, eta kirol aniztasuna errealtate bat da gure lurraldean, berdintasuna, elkartasuna, esfortzua eta baloreak sustatuz. Esan dezakegu gure kirolaren osasuna ona dela, besteak beste Eskola Kirolaren ereduari esker ere bai.

Beharbada ezagutzen dudak eredurik onena da. Urte hauetan aldatzen joan da, eta oraindik ere egokitu beharra dago. Modalitate batzuk Eskola Kirolaren arauetatik kanpo funtzionatzen dute, beste batzuk ez dute errespetatzen araututakoa...

Eskola Kirola hobetu daitekeela garbi dut, zailtasunak zailtasun; Jauriaritza, Aldundiak, Udalak, Ikastetxeak, Gurasoak, Federazioak, Haurrak, denon artean hobetzeko erronka dugu, baina helburuak ahaztu gabe, indarrean baitaude nire ustez. Azaroaren 24an, Arrasaten, kirol eta hezkuntza munduko 100 eragile inguru bildu ginen hiru erkidegoetako Aldundiek etorkizunerako dituzten asmoak ezagutzeko, eta baita Eusko Jaurlaritzak berriztu nahi duen Kirolaren legean egin daitezkeen moldaketak proposatzeko. Saioa benetan interesgarria izan zen, eta hurrengo urteetan, Eusko Legebiltzarrean eta Foru Aldundietan hartu beharko diren erabakietarako proposamen ugari atera ziren.

Beste kontu bat da, eskola kirola dekretu bakarra izanda, hiru lurraldeetan egiten diren interpretazioen arteko desberdintasunak. Eta nik galdetzen dut, benetan kaltegarria da lurralde bakoitzak bere eredu propio izatea, beti ere dekretuak dioena errespetatzen bada?

Gaurtik aurrera zabalik egongo da Eibart Gabonetako Azokia Untzagan

Gaur zabalduko dabe Eibart 13. Gabonetako Azokia. Aurten Untzagan egongo dira Gipuzkoa eta Bizkaiko artisauak, horretarako bereziki ipiñi dittuen postuetan. Ohikua dan moduan, eskintza zabal egongo da: pitxiak, arropak, konplementuak, jaboi naturalak... Urtarrilaren 5era bitartean egongo da martxan Eibart Eibarko artisauen alkartiak, udalaren eta Foru Aldundiaren laguntasunarekin antolatzen daben azokia, goizez 11:00etatik 14:30etara eta arratsaldez 17:00etatik 21:00etara (abendua- ren 18 eta 25ian eta urtarrilaren 1ian itxitta egongo da).



asteko
225,94
datua

euro biztanle bakoitzeko inbertitzen dau Eibarrek eta, kopuru horrekin, Estatuko bosgarrena da gehixen inbertitzen. Zerbitzu Sozialetako Zuzendari eta Gerentien Alkartiarren ikerketan, Errenteria dago lehen postuan (290,99 euro), Santurtzi gero (265,76) eta Arrasate ondoren (255,90). Ikusten denez, EAE jarraitzen dau nagusi izaten arlo horretan.

Domekan agurtuko dabe Kultur Aniztasunaren astia

Abenduaren 18xa etorkiñen nazioarteko eguna da eta, hori gogoratzeko ekitaldixa antolatu dabe domekarako, Untzagan. Goizeko 11:00etatik aurrera

gaixarekin lotutako informaziñua banatuko dabe, taillarrak eskinduko dittue, musikia be egongo da... Jaialdixak 15:00ak arte iraungo dau. Asteburu honetarako preparau dabenez gain, etorkiñen egunaren harira aste osuan egin dira jarduerak Eibarren dagu- zen etorkiñen alkartien eskutik. Astelehen, martitzen eta eguaztenian Senegal, Nepal



eta Marokoko sukaldaritzaren inguruko taillarrak egin ziran Portalean, Toyor Al Hanna, Diapo Lete, Nepal eta Gazte Safa alkartiak antolatuta. Horrez gain, antzerkixa eskindu eban Caminamos Para Crecer taldiak eta atzo CEAR Euskadik sexu-explozaziñuaren eta asilo eskubidiaren inguruko hitzaldixa emon eban.



Astelena Haur Parkia bixartik zabalik

Bixar zabalduko dabe Gabonetako Haur Parkia, Astelena frontoian, eta hortik aurrera beste egun batzuetan be zabalduko dabe (abendua 23, 26, 27, 28, 29 eta 30ian). Goizez 11:00etatik 14:00xetara egongo da zabalik eta arratsalde, barriz, 16:45etatik 20:30xetara. Parkerako sarreriak 3 euro balixo dau, baiña EMGI alkartiak erosketak egitterakuan banatzen dittuan bonuekin ez da ezer ordaindu bihar. Edozelan be, frontoiko kantxarako aforoa mugatuta daguan ez (gehixen jota 150 ume egon leikez aldi berian), parkera doiazenak 90 miñutuko tartia eukiko dabe jolasteko.



Presuen eskubidien alde egin eben eibartarrak be Parisen

Euskal Herriko beste toki batzuetakuak moduan, eibartarrak be Parisen egon ziran, aurreko asteburuan 'Bakea Euskal Herrian. Orain presoak' goiburuari jarraituta euskal presuen eskubidiak aldarrikatzen. Antolatzaillien aurreikuspen guztiak gaitziduta, 11.000 lagun inguru batu ziran Frantziako hiriburuan egindako mobilizaziñuan.

autuan

"PASAIKO BADIÀ" AURKEZTUKO DABE KULTURALIAN

Datorren eguaztenian, 19:00etan aurkeztuko dabe "Pasaiko badià" dokumentala, Pasaiko badiako harkaitzetan oin dala 32 urte izandako gertakari larrixen inguruko kontakizuna. Arrate Kultur Elkartean izango dan ekitaldixan dokumentalaren egilliak egongo dira eta, hortaz, jendiak galderak egittekot aukeria eukiko dau. Sarrera libria izango da.



WATERPOLOKUEEN OTARRA

Urbat waterpolo taldiaren Sanandresetako otarraren irabazlerik ez da agertu oindiok. Otarra 1.191 zenbakixari egokitu jakon zozketan. Bestela, erreserbako zenbakixak 1.773, 798, 1.004 eta 1.559 dira.



MARIAN ABASCAL RUIZ

(2017-XI-21)

ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN.

ETXEKOAK



SERAFIN VEGA TABORGA

1932-III-9 / 2017-XII-5

Familiaren izenean, **ESKERRIK BEROENA** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

herriko kaleei begirada



TXONTA

egilea:
 FERNANDO ESNAOLA

Dibujo Eskolarekin elkarlanean



Jose Antonio Alberdi eta Maite Markuerkiaga, kamiseta batzuekin..

Amañako Jaixen aldeko zozketako sarixak abenduaren 31ra arte jaso leikez

Amañako Jai Batzordiarene alde Maite Markuerkiagak antolatutako zozketia San Andres egunian egin zan, notarixuaren aurrrian, eta sarixa irabazi daben 179 zenbakixak albistiaren amaieran dakazue. Sarixa jasotzeko Larragest-en bulegora juan bihar dabe irabazliak eta horretarako epia abenduaren 31n amaittuko da (ordurako sariren bat emon barik jarraituz gero, erreserbako zenbakixendako izango da). Sariren bat irabazi daben zenbakixak honek dira:

| | | | | |
|-------|-------|--------|--------|--------|
| 501 | 4.484 | 9.489 | 15.733 | 24.047 |
| 569 | 4.486 | 9.659 | 15.951 | 24.054 |
| 573 | 4.553 | 11.094 | 15.955 | 24.063 |
| 669 | 6.506 | 11.235 | 16.184 | 24.090 |
| 672 | 7.095 | 11.264 | 16.249 | 24.260 |
| 678 | 7.163 | 11.282 | 16.327 | 24.325 |
| 711 | 7.182 | 11.356 | 16.347 | 24.339 |
| 797 | 7.301 | 11.482 | 16.411 | 24.340 |
| 855 | 7.532 | 11.491 | 16.434 | 24.344 |
| 876 | 7.712 | 11.503 | 16.483 | 24.378 |
| 1.273 | 7.720 | 12.105 | 18.027 | 26.505 |
| 1.490 | 7.761 | 12.166 | 20.209 | 26.507 |
| 1.419 | 7.789 | 12.216 | 20.244 | 28.340 |
| 3.019 | 7.808 | 12.209 | 20.467 | 28.468 |
| 3.030 | 7.847 | 12.366 | 20.520 | 28.472 |
| 3.068 | 7.856 | 12.382 | 20.595 | 28.475 |
| 3.088 | 7.914 | 12.434 | 20.681 | 28.522 |
| 3.156 | 7.925 | 12.454 | 20.798 | 28.579 |
| 3.165 | 7.941 | 12.485 | 20.882 | 28.671 |
| 3.207 | 7.968 | 12.491 | 20.887 | 28.754 |
| 3.250 | 8.556 | 12.553 | 20.925 | 28.759 |
| 3.353 | 8.744 | 12.763 | 20.979 | 28.914 |
| 3.421 | 8.758 | 14.510 | 22.094 | 28.919 |
| 3.454 | 8.809 | 14.519 | 22.165 | 30.025 |
| 3.464 | 8.860 | 15.092 | 22.202 | 30.176 |
| 3.501 | 9.258 | 15.163 | 22.306 | 30.202 |
| 3.652 | 9.271 | 15.200 | 22.322 | 30.219 |
| 4.120 | 9.293 | 15.219 | 22.395 | 30.232 |
| 4.183 | 9.340 | 15.252 | 22.912 | 30.417 |
| 4.255 | 9.357 | 15.317 | 23.414 | 39.065 |
| 4.311 | 9.408 | 15.581 | 23.420 | |
| 4.352 | 9.441 | 15.679 | 23.779 | |
| 4.405 | 9.461 | 15.718 | 23.955 | |

Astelehenian sartu zan Zaballako kartzelan Iker Rokandio

Astelehen illuntzian sartu zan Iker Rokandio eibartarra Zaballako espetxian, epailliak ezarritako zigorra betetzera, oin dala hiru aste Martutenen Amaia Agirregabiria egindako moduan. 2013an Pasaian ezertaz ezagutzen ez eben andra baten baten eta bi udaltzañen artian gertatutako trafiko liskar batian, alde bixen hobebiharrez ari ziralakuan, bitartekari-lana egitteko orduan okertu egin ziralako 2 urte eta 6 hillebeteko kartzela zigorra betetzera kondenatu dittu epailliak orduan Pasaiaiko alkatia zan Amaia Agirregabiria eta udaletxe horretan letradu modura biharrean eguan Iker Rokandio.

Honen lagunak diñuenez, *“une mingarrixak jasan dittugu, baiña Ikerrek gure babesa eta berotasuna sentidu bihar dittu kartzela barruan be. Horregaittik gutunak idaztera, argazkixak bidaltzera... animatu nahi dogu jendia”*. Horretarako helbidia hauxe da: Iker Rocandio, Centro Penitenciario de Araba, Portillo San Miguel nº 1. Carretera N-1, Km. 340, 01230. Amaia eta Ikerren gaiñeko informaziñua jasotzeko, www.amaia-iker.eus webgunia martxan daguala gogorarazi dabe eta *“Iker lehenbailehen Eibarko kaltetan atzera be ikusteko”* ekintza gehixago antolatuko dittuela iragarri dabe.



Kartzela barruan egonda be, herritarren alkartasuna sentitzia nahi dabe lagunak.

Alfa ez ixteko eskatzen manifestaziñua egingo da gaur arratsaldian

Gaur arratsaldeko 19:00-etan urtengo da manifestaziñua Untzagatik, goiburu labor eta argixarekin: "Alfa ez itxi!". Izan be, egun gitxiko tartian Alfako bihargiñen egoeriak okerrera egin dau, nabarmen gaiñera, zuzendaritzak 40 bat langille kaleratzeko zekan asmua aldatu eta abenduaren 7xan Alfa Precision Casting enpresaren likidaziñua gauzatzeko erabagixa hartu eban eta. Likidaziño espedientiak Aluminixo eta Al-tzairu ataletan eta Mekanizatueta daguzen 140 bihargiñeri eragiten detse zuzen-



Bihargiñak gaurko manifestaziñora juateko deiza zabaldu detse herritarreri.

nian eta, zuzendaritzak likidaziñorako espedientia aurkeztu ebalakin bezin laster,

tzeko prest egon leikian bazkideren bat bilatzen laguntzeko eskatu eban.

Errebalgo lanen kontratua enpresarekin etetzia erabagi dau Udalak

Oin dala egun batzuk egindako prentsaurrekuan azaldu eban, udalak administraziño-tramitia hasi dau Dragados SA enpresarekin Errebalen erabillera anitzerako eraikiña egitteko zekan kontratua bertan behera lagatzeko, "enpresiak ez dittualako bete lanak gauzatzeko epe partzialak".

Obrak 2015ian esleitu jakozen Dragados enpresari, 4.952.683 eurotan, eta 30 hillebeteko epian betetzeko baldintzatekin. Arcadio Benitez Hirigintza ziñegotzixaren berbetan, "biharrak 2016ko otsaillian hasi ziran eta 2018ko uztailerako amaittuta egon bihar ziran. Hasieratik ibilli dira eritmo diferentietan biharran eta sei astetan geldirik be egon ziran, azpikontratetako batekin arazuak izan zittuelako. Kontratua siñatzen, hiru epe partzial ezarri ziran: zimentaziñua eta euste-hormak 2016ko 31rako amaittuta egon bihar ziran; 2017ko abuztuaren 31rako, barriz, hormigoizko egitura eta plazaren estalkixaren estruktura metalikua be eginda egon bihar ziran; eta inpermeabilizaziñua, barriz, 2018ko otsaillaren 1erako. Baiña udaleko Obra Zuzendaritzak egindako txostenaren arabera, zimentaziñua eta hormak abuztuaren 18xan amaittu zi-



Bedialauneta, Benitez eta Telleria prentsaurrekuan.

ran, eta behe solairuko lauzaren hormigoiketa, barriz, azaruaren 29xan amaittu eban, aurreikusittakua baiño askoz beranduago". Epiak ez betetziak gain, kontratua eteteko beste arrazoi batzuk be badaguazela azaldu eban, hortik kontratua bertan behera lagatzeko hartu daben erabagixa.

Ardau apardunak ezagutzeko saiua

Aste honetan Illunabarrian programaren barruan ...eta kitto! Euskara Elkartean egindako arda dastaketia biribilla izan zala azaldu dabe antolatzailliak. Saiuan parte hartzera animau ziranak 5 apardun arda dastatu zittuen eta, amaitezko, Landetako arda goxua be probau eban. Dastaketia gidatzen ibilli zan Aide Jauregik cava batetik bestera daguzen aldiak azaldu zittuan eta, horrez gain, produkziñuari zein bestelakueri lotutako hamai-ka gauza gehixago kontau zetsazen partehartzaillieri. Saiua amaittu eta gero esandakuaren arabera, "bildutakuak oso gustora entzun zittuen azalpen guztiak eta gauza asko ikasi zittuen. Esperientzia berezixa eta gustagarrixa izan zan, zalan-tza barik".



Liburu-azokia zabalduko dabe asteburuan Eibar-Sahara alkartekuak

Eibar-Sahara Elkartekuak, urtero sasoi honetan egitten daben moduan, erabillittako liburuekin azokia ipiñiko dabe Untzagan. Asteburu honetan, zapatuan eta domekan zabalduko dabe azokia Untzagan, goizeko 10:00etatik illuntzeko 20:00ak arte. Betiko moduan, bigarren eskuko liburu eskintza zabala egongo da, oso merke, gaiñera (1€, 3€ eta 5€).



Armagintza Museoak dotore jantzita esango dio agur urteari. Hilaren 29ra arte Ion Fiz goi-mailako jostuntzako diseinatzailearen lanak daude bertan ikusgai eta bere sorkuntzak erosteko aukera ere egongo da. Eibarren jaiotako moda-diseinatzailearen firmak hamabost urte bete ditu eta bere ibilbidearen zertzeladak ikusi ahal izango dira erakusketa honetan. Ion Fiz erreferentea da gaur egun goi-mailako jostuntzan, baina aurrera begira gogor jarraitzen du lanean.

“Asko gustatuko litzaidake Eibar KEren kamiseta eta traje ofiziala diseinatzea”

– Zer ikusi ahal izango dugu Armagintza Museoan jarri duzun erakusketan?

Moda eta diseinuaren munduan hamabost urte hauetan egin ditudan sorkuntzen zertzelada bat da museoan ikusi daitekeena. Josterako orduan erabili ditudan teknika ezberdinak kontenplatu daitezke. Gainera, nire lanetako batzuk erosteko aukera ere egongo da, ‘pop up’ (aldi baterako

salmenta tokia) berezi bat dagoelako gizon, emakume eta umeen erroparekin arrazoizko prezioan.

– Irailean Bilboko Guggenheimen moda eta diseinuaren munduan bete dituzun hamabost urteengatik egindako desfilaren ostean, zer esan nahi du zuretzat zure lanak Eibarko museoan aurkeztu ahal izatea?



ALAZNE PUYOL ARRIETA

I. URTEURRENA: 2016/XII/14

“Beti izango da kafetxo bat zuretzat gure bihotzetan”

KAFEKO ZURE LAGUNAK

Etxera bueltatzea da. Nire lanak lehenengoz Eibarren erakustea nire haurtzarora itzultzea da, nerabetasunera, jaio nintzen hirira.

– Armagintza Museoa Eibar iraganean izan denaren erakusle da. Modak beste kapitulu bat idatzi dezake gure hiriaren garapenean?

Bai, noski! Moda edozein hiriren ekosistemaren pieza bat gehiago da eta hori ere erakutsi beharra dagoela uste dut.



“MODA edozein hiriren ekosistemaren PIEZA BAT GEHIAGO DA”



Fizek goi mailako joskintzan bete duen 15. urteurrena aprobetxatuz, Armagintzaren Museoan zabalduko erakusketak hilaren 29ra arte erakutsiko ditu bere lanak.

– Zer geratzen da 24 urterekin moda eta diseinuaren munduan bere marka sortu zuen mutiko hartatik?

Asko. Diseinatzerakoan eta prozesua sortzerako orduan 24 urte zituen mutil horren antzekoa naiz. Hori bai, patronaje eta tailerraren teknikari dagokionez ez dauka zerikusirik gaur eguneko gizonak orduko mutilarekin. Orain trebetasun arinagoa daukat.

– Modaren munduan etorkizun handiko diseinatzailea izatetik erreferente izatera pasa zara hamabost urte hauetan. Zer behar da bide hori egiteko?

Lana, pasioa eta disziplina. Zure lana gustuko duzunean ehuneko ehuna ematen duzu.

– Zaila da modaren mundua?

Oso konplexua da, baina beste arlo artistikoen moduan. Lan asko egin ezean, ez duzu arrakastarik lortuko.

– Zertan inspiratzen zara diseinatzerako orduan? Zure jatorriak badu eraginik?

Artean, bidaietan, arkitekturan, musikan, naturan, nire jatorrian... dena da baliagarria inspirazioa lortzeko orduan.

– Goi-mailako joskintzako diseinatzaile moduan jardun duzu zure ibilbide profesionalean, baina Iberdrola eta McDonald's-en jantziak ere egin dituzu, eta

baita Nancy panpinen kolezioa ere. Horrelakoak egiterako orduan zaila da txipa aldatzea edo ondo datorkizu dinamika aldatu eta aire freskoa hartzeko?

Erronka handia izan da niretzat horrelako lanak egitea eta asko gozatu dut. Gainera, urteak daramatzat konplementuak ere diseinatzen. Betaurrekoak, oinetakoak, bitxiak eta dekoratuak diseinatzen ditut. Bultzada eta aire freskoa hartzen dut horrelakoak egiterako orduan. Sortzea gustatzen zait.

– Jende ezagunak erabili izan ditu eta erabiltzen ditu zure sorkuntzak, baina zure jantziak oraindik eraman ez dituen nor jantzi nahiko zenuke?

Eibar Kirol Elkartearen kamiseta eta traje ofiziala diseinatzea asko gustatuko litzaidake.

– Zure firmak hamabost urte bete ditu, baina badoa hamaseigarrenaren bila. Zein erronka ditu aurrean Ion Fizek?

2018a proiektu berri askorekin etorriko da. Urtarrilean 2018/19 denboraldiko gizon eta emakumeen udazken eta neguko bildumak aurkeztuko ditut Madrilgo Mercedes Benz Fashion Week pasarelan. Kontatuko dizkizuet aurreragorako ditudan planak. Eta Eibarren berriz ere erakusketa bat egitea espero dut!

Pedro M^a Garma Quintana

1. URTEURRENA: 2016/XII/13



Gure ondotik aldendu zinela urtea bete den honetan, bereziki eskertu nahi dugu, zurekin zuen harremana gogoratzuz, IBON MUÑOAK bidali dizkigun eskutitzak eta eskainitako laguntza guztia.

NATI, JOSE LUIS ETA ERNESTO



Margolari bokaziñua zekan grabadoriaren legatua

Gaur arratsaldian zabalduko dabe Jose Kareaga Guridi (1930-2008) grabadore, pintore eta bitxigille eibartarrari eskindutako erakusketia Portalean. "Jose Kareaga artisa / artista (1930-2008)" izenburua dakan erakusketan Jose Kareagak egindako biharraren zati bat, batez be haren margolanak eta grabauak erakutsiko dittue, urtarrillaren 7ra bittartian. Olioan pinttautako kuadruak beteko dabe Portaleko erakusketa aretuaren zatirik haundiña, baiña akuarelak, marrazkixak eta arkatzarekin egindako dibujuak be eukiko dabe tokixa eta, horrekin batera, kataloguak, prensa-dosierak, argazkixak eta lanerako erremintta asko be izango dira ikusgai. Artearekin liluratuta mundura etorri zan eibartarra 2008ko abuztuaren 28xan hil zan, baiña famelixakuak antolatu daben erakusketiak Jose Kareagaren obra bizi-bizirik segitzen dabela argi lagako detse ikustera doiazen guztieri.



Maria Angela (Errebal) kalia jaixo zan Jose Kareaga Guridi, 1930eko martxuaren 9xan eta bere etxia Ignacio Zuloaga margolari haundixa jaixo zan etxetik oso gertu eguan. Gurasuak, Mateo Careaga grabadore aparta eta Justina Guridi izan ziran. Berak esaten eban moduan, "grabadoria nekan aitta, baitta aitxitxa be". Argi ikusi leike, hortaz, Cayetano Careaga grabadore haundiaren loibia zan Josek etxian bertan jaso ebala artearekiko zaletasuna, urrutira begiratzen ibilli barik. Artista modura lehen pausuak be aittaren grabatu-taillarrian emon zittuan, 13 urterekin han hasi zan eta modelatzen eta grabatzen.

Arte munduan zelan hasi zan gogorazten ipiñitta, berak ziñuanez "11 urterekin,

dibujo eskolan sartu nintzan. Eibarko Gregorio Muguerza irakasliak eta Jacinto Olave margolari bikaiñak zuzentzen eben eskolia. 13 urterekin emon nittuan lehen pausuak modelatugintzan eta grabatugintzan, gure aitta Mateo Careagaren grabatu-taillarrian. Bera izan zan nere benetako maisua eta 15 urterekin jabetu nintzan huraxe zala nire bidia". Pixkat geruago, 16 urte zittuala, Armerixa Eskolan sartu zan eta hantxe pasau zittuan hiru urtietan algebra, dibujo industrialia eta bestelako ezagutzak bereganatu zittuan. Sarixak jasotzen be gazterik hasi zan: probintzia maillako lehen sarixa Donostian emon zetsen, argizarizko modelatuan eta igeltsuzko molde-lanetan. Teknika berbera erabillitta sortutako lanaren eskutik ailegau jakon estadu maillako Ohorezko Aipuaeren sarixa, Madrillen. 18 urte baiño ez zekan. Grabadore fiña, bereziki aittatzekuak dira medaillagintzan, trokelgintzan, ohorezko plaketan eta bitxigintzan egin zittuan lanak. Beste askoren artian, Ignacio Zuloaga margolarixa jaixo zala ehun urteurreneko omenezko medallia berak egin eban, 1970ian. Lanbide horretan ixa bizitza osua emon eta gero, grabauan egindako biharrarengaittik eskerrak emoteko, 1994an Diplomía jaso eban Gipuzkoako Ganberaren eskutik.

Berak esandako berbak gogora ekarritta, "mundura arteak liluratuta ailegau nintzala uste dot, naturak sorginduta. Mutikua nintzala hasi nintzan mirari horren xarma



Bizitza osua grabatzen pasau eban Kareagak, hori izan zan-eta aukeratutako ofiziu.

dastatzen. Nere aittaren aldeko Cayetano Careaga aitajaunak be jakin eban elementu zoragarri horrek bere bizitzan txertatzen. Oroitzen naiz, 6 urte eskas nittuala, zer-nolako zirrarara eragin zestan Bay-Salak, gero horren artista haundixa izatera ailegaurko zan kaleko pintore hark. Bilboko Areatzan margotzen eta saltzen eban. Hara ailegau nintzan ni, famelixarekin batera, beste gipuzkoar asko bezala. Gerra sasoi zan. Umetatik gozatzen neban naturaren ikuskizunarekin. Bertan topatzen neban edertasuna kuadernora eruaten ahalegintzen nintzan. Oharrak arkatzarekin hartzen nittuan. Izeko Mercedesek akuarela-zorro bat oparitu zestan eta teknika horrekin hasi nintzan zirriborruak egitten. Aittak, zaletasun horrek grabatuaren ofiziotik urrunduko ninduan beldurrez, zera esaten zestan: 'Ez eik denporarik galdu horrekin kolorkin...'. Baiña azkenian, nere lanak ikusitta, etsi eta baietza emon zestan".

Euskal Herriko paisajiak

Aittak baietza emon zetsanian, margolaritzan trebatzeko ikasten hasi zan: "19 urterekin, Miguel Marañon pintoriaren akademixara juaten nintzan Bilbora, neure lana hobetzera. Han ikasi neban ikatz-marrazkixa. Hurrengo urtietan asmo bakarra nekan. Nere bokaziñua, duda barik, pinturia zan". Pinturarako zaletasun goiztiarra euki eban, zalantza barik: "Orduan sasoi an nere margogintza inpresionismuaren eta expresionismuaren artian zebillen, formak modu ordenatuan modelatzen nittuan. Pintzelkadak asmo eraikitzaile garbixa dauka eta kubistak gogorarazten di-



Bitxigintzan gauza asko sortu zittuan, gehixenak jendiak egindako enkarguak.

ttu, segurutik modelatuan nekan formaziñuaren eragiñez. Pintzelkada segurua da, indartsua, paleta inpresionista batekin lagundutakua. Koloria bera da bolumenaren konzepziñua azpimarratzen dabena". Kuadrue tarako aukeratzen zittuan gaixetan, barriz, bat beste guztien gaiñetik nagusitzen da, nabarmen, gaiñera: paisajia, batez be Euskal Herrikua. Berak azaltzen eban moduan, "saiatzen naiz bertako zeru-lurretako gris eta berdiak antzematen eta margotzen, bertako pagadixak pintatzen, bertako basarri zaharren herri-arkitekturia kuadroetara eruaten".

Pentsau leikian moduan, Eibarren orduan sasoi an eguazen margolari gaztiekin (Paulino Larrañaga, Ignacio Iraegui, Dunixi Murua...) kontaktuan ibilli zan: "Lan-erremintak hartuta, alkarrekin hasi giñan lantzian behin mendialdera urteten. Durango aldía zan gure parajerik gustukuena". 1966-1974 aldian, Sociedad de Artistas Eibarreses sortu eban, hainbat jarduera egitteko, baiña batez be arte plastikuak hedatzeko asmuarekin. Eibarko Artisten Elkarte 1974. urtian osatu eban eta Kareaga izan zan lehen presidentia. Orduan hasi ziran hainbat artista famaturen lanekin erakusketa monografikuak antolatzen: Arrieta, Zuloaga, Macarrón, Carlos Elgueza, Menchu Gal, Olave...

Aire libreko pintura lehiaketetan be hartzen eban parte, gehixenbat Gipuzkoa eta Bizkaia aldian. Horrelakuetan inpresionismuaren eragiña zekala aitortzen eban: "Aire librian pintatzeko inpresionisten tradiziñuari jarraitzen netsan. Kuadrua in situ hasten neban eta, gero, lehen inpresiño

hura estudixuan lantzen neban. Nere erreferentziak, bestiak beste, Mir, Sisley edo Vazquez Diaz ziran". 1961. urtian, 31 urterekin, hirugarren sarixa lortu eban Gipuzkoako Artista Hasibarrixen lehiaketan. Hortik aurrera, 1973. urtera arte, 17 sari jasoz zittuan lehiaketa ezberdiñetan. 1974an, lehiaketetan parte hartetik hainbat epaimahaitako kide izatera pasau zan.

400 kuadro baiño gehixago

Biharretik kanpora orduak eta orduak ekindu zetsazen bere zaletasunari eta, horren emaitza, bizitzan zihar margotu zittuan 400 oleo baiño gehixago dira. Hórrretako gehixenak banaka zein taldeka egindako erakusketetan ikusgai egon dira iñoiz. Edozelan be, holako obra haundixa sortu eta gero, gaur egunian munduan zihar sakabanatuta dagoz kuadrue tarako asko. Horregaittik, ahal daben guztien irudixak bildu eta gordetzeko asmuarekin, laster martxan egongo dan www.josekarea-ga.eus web orrixan biharrian dihardue Joserren seme-alabak.

Sormenerako zuen berezkotasun horri, kultura arluan egindako beste ekarpen asko gehittu bihar jakoz: damaskinatugintzaren alde gogotik jardun eban, Eibarren Museua sortziaren alde biharra egin eban eta Eibarke gaixekin zerikusixa zeken liburuak kale-ratzeko orduan be udaleko Ego Ibarra batzordiar ahal eban guztian laguntzeko prest egon zan beti. Gure herrixan ahozko ondaria gordetzaren alde sortu eban Eibartarren Ahotan proiektuan be hartu eban parte eta, hainbat alkarriketetan bere lekukotasunak grabauta laga zittuan.



ODISEA EIBAR

Helburuak

Odisea elkarte 2012an sortu zen Eibarren, mahai-jokoen eta joku parte-hartzaile eta sortzaileen bidez, inguruko aisialdi alternatiboa sustatzeko.

Ekintza nagusiak

Euren lokalean era askotako jokoak egiten dituzte: "Warhammer", Malifaux", "Infinity" edo "X-Wing", rol-jokoak, estrategia eta mahai-jokoak... Horretaz gain, urte guztian zehar "Odisea en el tablero" edo "Héroes del Grafito" bezalako ekimenak antolatzen dituzte. San Juan jaietan herritar guztientzako zabalik dagoen ekitaldi berezia antolatzen dute udaletxeko arkupeetan: mahai-, karta-, estrategia- eta gerra-jokoak, eta, horretaz gain, erakustaldiak, zozketak, lehiaketak eta eskulanak egiten dituzte.

Elkartean gero eta kide gehiago dira. Hori dela eta, urriaren 31n, Halloween egunean, lokala inagururatu zuten Barrena kalean.



Helbidea: Barrena 26
Telefonoa: 679 63 10 68
E-maila: contacto@asociacionodisea.com
Facebook: @Odiseaasociación



Urriaren 31n inauguratu zuten lokala Barrena kalean.

TXOLARTE

Helburuak eta eskainitako zerbitzuak

ATZEGI adimen urriko pertsonen aldeko Gipuzkoako elkartearen barruan dagoen programa da TXOLARTE. 16 urtetik gorako pertsonentzako aisialdi eta denbora libreko klubak dira Txolarreak, eta Gipuzkoako hainbat herritan daude. Eibarren Arane kalean elkartzen dira zapatu arratsaldeetan euren gustukoak diren gauzak egiteko: jolasak, tertuliak, festak, pintxo-potea... Taldea dinamizatzeko funtsezkoa da begirale boluntarioen figura. Eurei esker existitzen da taldea, eta azkenaldian boluntarioen faltan daude, inoiz baino behar handiagoa daukate. Edozein izan daiteke boluntario, behar den gauza bakarra gogoia izatea eta pertsonekin lan egitea gustatzea da.

Ekintza nagusiak

Eibarko Txolarrean taldetxoak egiten dituzte, bakoitzaren gustuen arabera gauza desberdinak egiteko: margotu, partxisean jolastu, musika entzun, gauzak komentatu, monitoreekin berba egin... Pertsona hauentzako oso inportantea da zapatuetako jarduera hau, aukera ematen dielako besteekin harremanak izateko eta taldean ibiltzeko. Pintxo-potea asko gustatzen zaie. Euren arteko harremana eta begiraleekin daukatena primerakoa da, eta Eibarko taldea eredugarria dela azpimarratzen dute leku guztietan.

Helbidea: Arane 9, behea (Txomo)
Telefonoa: 677 75 49 85
E-maila: esthereibar@yahoo.es
Kontaktua: Esther Alonso



Txolarre aisialdi-taldean funtsezkoa da begiraleen lana.

Beldur Barik jarreraz bete ziren herriko kaleak lehiaketaren harira

Oraindik bada pentsatzen duenik egunerokoan gertatzen diren eraso sexistak normalak direla. Izan ere, emakume guztiok oso maiz pairatzen ditugu jendar-tean oso errotuta dauden hainbat jokabide sexistak, eta horrek berez guztiz baztergarriak diren jarrerak oharkabean onartzea dakar eta baita berdintasunari garrantzirik ez ematea ere. Beraz, argi dago poliki-poliki aurrera egin bada ere, oraindik badagoela zer eginik arlo honetan.

Testuinguru horretan kokatzen da, urtero bezala, aurten ere Eibarren ospatu den Beldur Barik lehiaketa. 12 eta 26 urte bitartekoek ikus-entzunezkoen lehiaketa honek parte-hartze handia izan du aurtengoan ere, bai gure herrian, baita Euskal Herri mailan ere. Helburu nagusia neskek eta mutilek desberdintasun-egoeren aurrean dituzten erreakzioak aztertzea da, eta, era berean, erreparatzea nola egiten dioten aurre indarkeria sexistaren adierazpenei Beldur Barik jarrerarekin.



Jone Bengoa, Uxue Igarza eta Marta Marina saria jaso zuten "Artetik Ahalduntzara" lanarekin.

Zazpi izan dira guztira Eibarren aurkeztutako lanak. Horietako sei lehenengo kategoriari dagozkio (12/17 urte bitartekoak), eta bakarra, Nalua taldeko partaide diren hiru lagunek aurkeztutakoa, bigarrenari (17/26 urte bitartekoak). Lehen taldean, Eibarko Ignazio Zuloaga institutuko 3 ikaslek (Naia Martinek, Eider Martinezek eta Helene Larrazabalek) sortutako **Itxaropena** izeneko bideoa izan da aurtengo irabazlea. Naia Martinen hitzetan, "gure egunerokoan aurki ditzakegun jarrera transfobo, homofobo eta matxistak islatzea zen gure helburua. Transmittitu nahi genuen mezua jendearengana iritsi dela uste dut, gure lana ulertua eta saritua izan delako. Lehiaketan parte hartzen dugun lehenengo aldia da eta, egia esan, nahiz eta lehen ere kontziente izan gizartean zegoen egoeraz, lan honek balio izan digu ohar-tze-

ko gizarte patriarkatu honek oraindik ere al-daketa ugari behar dituela, eta lan handia da-goela aurretik".

Bigarren taldeko lanaren egileak eta irabaz-leak Uxue Igarza, Marta Marina eta Jone Bengoa dira. Hirukotea lehenetik ere parte hartutakoa eta irabazitakoa da lehiaketan, nahiz eta orain arte Naluaren izenean egin, eta orain-goan ez. **Artetik Ahalduntzara** izenburuko euren ikus-entzunezkoan feminismoa eta artea uztartu nahi izan dituztela diote. "Alde batetik, artea borrokarako tresna dela (izan dela eta izango dela) erakutsi nahi genuen. Irudiak, dantzak, musikak, poesiak... mezuak bidaltzen dituzte jendartera eta zuzenean emozio-etan dute eragina eta hori oso baliagarria da iraultza feminista gauzatzeko eta emakumeon ahalduntzerako. Bestetik, plazera aldarrikatu nahi genuen".

Lehiaketak lehiaketa, oinarrian dagoena da funtsezkoena: genero-indarkeriaren sustraie-tan dagoen sistema patriarkala ezabatzea eta berdintasuna sustatzea. Beldur barik lehiaketa ez ezik, jarrera ere bada. Lehiaketan parte hartu duten lan guztiak <http://beldurbarik.org/eu/> helbidean daude ikusgai

GINEKOLOGIA,
OBSTETRIZIA eta

LAGUNDUTAKO UGALKETA n espezializatua

Abendutik aurrera Eibarko kontsultan

Estefanía Abanto

Untzaga, 11 - 1. D
943 70 29 42

VIVIANE STRAUB (artista):

“Jendea argazkiak ikustetik haratago joatea nahiko nuke”

Kokojaten arkitektura estudioak bere argazkiak erakusteko ateak ireki dizkio eta hainbat testurez gozatzeko aukera ematen du Viviane Straubek. Azaroaren 25ean ireki zen Eibarren bizi den alemaniarraren “Texturas” izeneko argazki-erakusketa eta abenduaren 20ra arte egongo da zabalik Calbeton kalean, astegunetan, 10:00etatik 19:00etara.

– **Nola izan duzu Kokojaten estudioan zure argazkiak erakusteko aukera?**

Idurre Iriondorekin zerbait egiteko asmoa neukan eta bere bitartez ezagutu nuen Kokojaten estudioko Nestor Perez Valenciaga. Estudioaren aurreko aldea ez du erabiltzen eta bizitza kulturalarekin bete nahi du. Azkenean Idurrerekin ez dut ezer garatu, baina argazkien proiektua neukan abian eta Nestorrekin ados jarri nintzen.

– **Zer aurkituko dugu erakusketan?**

Egunerokotasunean ikus ditzakegun gauzen testura eta azalen argazkiak dira. Hostoak, lurra edo metala, adibidez. Formatu berean daude guztiak, karratuak dira marko bategu inguratuak. Atentzioa deitzen dutelako aukeratu ditut azal horiek, euren kolore eta testurek beste gauza batzuk gogorarazten dizkidelako. Jendea argazkiak ikustetik haratago joatea nahiko nuke. Oso hurbiletik egindako argazkiak direnez, ia ezin dugu jakin zer den bertan islatzen dena. Izan ere, ez gaude gauzak hain hurbiletik ikustera ohituta. Berriz begiratzen ikastea eta inguratzen gaituena estimatzea da kontua.

– **Argazkia sentitzea?**

Hori da! Hosto baten testura leunak zerbait gogorarazten digu; giza azala, adibidez. Gero, liburu bat utzi dut bertan, jendeak bere iritzia eman dezan.

– **Eibar inspiragarria dela deritzozu?**

Hiriaren kutsu industrialia interesgarria da. Fabriketan sartu izan naiz argazkiak egitera. Hemengo ondarea dira eta gehiago aprobe txatu beharko lirateke horrelako tokiak. Natura aldetik ere badago non inspiratu, eta kaleko bizitza ere oso ezberdina da nire herriarekin alderatuz. Hala ere, Eibar estetikoki hobetu daitekela uste dut (barreak).

– **Erakusketa egiten duzun lehen aldia da?**

Ez. Orain dela lau urte margo- eta argazki-erakusketa egin nuen Karrikan. Ez naiz argazkilaria trebea, baina argazkilaritzan ‘begia’ deitzen dena daukadala uste dut. Gero, erakusketa kolektiboak ere egin ditut.

– **Beti izan duzu artista-etorria?**



tika masterra egin nuen, frantziar eta espainiar literatura eta artearen historia uztartuz. Beti egon naiz arteaz inguratuta. Literatura ere artea da, eta idatzi ere egiten dut, alemanieraz eta frantsesez batipat.

– **Aktore moduan ere ibili zara.**

Bai, txikitatik. Hemen Narruzko Zezen taldean ibili naiz, baina aurrean ez naiz bueltatu denbora faltagatik. Orain Margolaritza Eskolan ere nabil eta horretan zentratu naiz.

– **Zerk ekarri zintuen Eibarrera?**

Tesia egiten ari nintzenean Frantziako lagun bat Getxoko Hizkuntza Eskolara joan zen lanera, eta Eibar eta Durangon lanpostu bat zegoela aipatu zidan. Hiru astetara hemen negoen. Hiru hilabete egin nituen hemen eta maitemindu egin nintzen denbora horretan. Bost urtez nire bidaia-helmuga izan da Eibar. Gero, Alemanian masterra amaitu ostean, Eibarrera etorri nintzen bizitzera. Hizkuntza Eskolan irakaslea izan nintzen eta ekainean Donostiako enpresa batean hasi nintzen lanean itzultzaile moduan.

Bai. Txikitan asko margotzen nuen, baina gero pixkat itzali zen pasio hori. Batxilergo artistikoa egin nuen Alemanian, baina beste gauza asko egin behar nituen. Lizentziaturan zehar oporrak nituenean nahikoa margotzen nuen, baina Masterrean hasi nintzen gehiago sortzen. Artista talde batekin geratzen nintzen biluzi-artistikoak margotzeko. Romanis-



Ignazio Zuloagako ikasleak Alemanian egon dira

Urteroko martxan, azaroaren 25etik abenduaren 2ra bitartean Alemanian, Balingen herrian egon ziren Ignazio Zuloaga BHIko 13 ikasle eta bi irakasle, Gimnasiumeko ikasleekin elkartruke-bidaian. Han eman dituzten egunetan Stuttgart, Constanza lakua eta beste toki esanguratsu batzuk ikusi dituzte, Gabonetako azo-

ketara joan dira eta, gainera, txokolate fabrika batean txokolatea egiten ere ibili dira. Hegazkinez egin dute bidaia eta eguraldiarekin zortea izan zuten, beraz, plan ezin biribilagoa!

Bestalde, Ignazio Zuloaga BHIk aurten 50 urte bete dituela eta, hainbat ekitaldi berezi antolatu dituzte datozen egunotako:

datarren astean, eguaztenean, Harkaitz Arana artzainak hitzaldia emango die Ekonomia eta Geografia ikasleei, lanbideak izan dituen aldaketak eta etorkizuna nola ikusten duen azaltzeko. Eta eguenean, berri, institutuko ikasle-ohia den Maite Arroitauregik (Mursego) zuzeneko emaldia eskainiko du aretoan.

La Salle DBH-ko ikasleek hainbat proiektu garatu dituzte

Erronka berriei aurre eginez La Salle Azitaingo DBHko ikasleak arazo desberdinei erantzun bat emateko proiektuetan aritu dira lanean aste bitan. Lehen eta bigarren mailako ikasleek kronika eta diseinu lanak egin dituzte, hirugarren mailakoek, berriz, eskola solidarioago baten aldeko ekintzak garatu dituzte eta laugarren mailakoek zientzia, teknologia, gizarte eta arte erakusketa prestatu zuten.








Kenay

belleza natural

Rosario Gomez Rodriguez
tel. 688 896 291
San Juan, 11-bis, 1.

Urtebete egin dugu zuekin eta, eskerrak emateko, Gabonetako Promozio Berezia eskaintzen dizuegu

2. SAIOA ERDI PREZIOAN



gure tratamendu guztietan



Aldaketarako menua: bertakoa jan ezazu

“Bertakoa jan ezazu, barietate desberdinak jan, sasoiko produktuak jan. Biodibertsitatea funtsezkoa da gure ekosistemaren osasunerako!”. Mezu sutsu hori bidaltzen die *Slow Food*-ek mundu osoan zehar aldaketa egiteko aukera daukaten (eta daukagun) gizarte mordoei. Kontua zentzuzko kontsumo baterantz joatea da, ahalik eta produktu lokal eta freskoekin, sasikoekin eta pestizida eta ongari gabekoekin. Modu horretan lagundu dezakegu emisioak gutxitzen, eta, batez ere, nazioarteko komunitateari mezu argi bat bidaltzen: **industria-sistema dominantearen aurrean alternatibak nahi ditugu eta ez dugu gehiago itxaron nahi.** Slow Food-ek erronka bat bidali nahi dizu zuri, **...eta kitto!**-ko irakurle zaren horri. Egunero kontsumitzen ditugu distantzia luzeak egin dituzten jakiak (lurretik, itsasotik edo airetik); energia kopuru handia kontsumitzen duten produktu ontziratu

hoztuak. Batzuetan saihetsezina izaten da (kafea eta kakaoa, esate baterako, baka-rik zonalde tropikaletan landu daitezke), baina sarritan etxetik gertu ere aurki ditzaitezgun janariak izaten dira.

Oso garrantzitsua da maila txikian eta teknika jasangarriekin egindako tokian tokiko produktuei lehentasuna ematea, ingurugi-



roan klimari eragindako inpaktua arindu ahal izateko. Horretaz gain, tokiko jakiak freskoagoak, onagoak eta osasungarriagoak dira! Horiek aukeratzean energia gutxiago kontsumitzen dugu, jaurtiki gutxiago sortzen ditugu eta hondakin-kopurua txikitzen dugu.

Sasoiko jaki lokalak biodibertsitatearen eta nekazal jarduera jasangarriak aukeratzeko dituzten ekoizle txikien ezagutzaren emaitza dira, eta lehen erronka produktu horiek babestea da. “Bertakoa jan ezazu” esloganarekin ahalik eta pertsona gehienen inplikazioa lortu nahi dugu, euren etxeetatik hasita keinu sinple bat eskatuz.

Datozen egun hauek oso aproposak dira jaten dugunaren eta zelan elikatzen garenean gaineko hausnarketa egiteko. Ez dugu jendea agobiatzerik nahi, baizik eta pertsonak kontzienteak izatera animatu nahi ditugu. Eman dezagun pausu bat. Urte berri on!



aitor buendía

LA RUTA SLOW-EKO
GIDARIA RADIO EUSKADIN

Badatoz Gabonak...

Bazkariak, afariak, gonbidatuak, ospakizunak, plazera... Garrantzitsuena zera da, ez zoratzea gehiegikerien zurrunbilo horren aurrean. Afaldu eta bazkaldu urteko egun guztietan egiten dugu... baina zelako lana ematen diguten Gabonetako egun seinalatu horietako otorduek!!! Aholkuak ematea ez zait larregi gustatzen, baina

bakarra esatekotan zentzuarekin jokatzeko esango nizuke. Ahal den neurrian, saiatu zaitzte Gabonak izateagatik pila bat garestitzen diren produktuak saihesten. Bi aste geroago produktu horiek erdi-prezioan aurkituko dituzue.

Ez zaitzete larritu, gauzak ondo planifikatu eta erosketak alde zurretik egin. Produktuak



josu belaustegi

BELAUSTEGI JATETXEA



kongelatu itzazue. Ez da ezer gertatzen!!! Familia artean egoteko egunak dira. Menuak egiteko orduan ingurukoen parte-hartzea bilatu ezazue. Horrela, denon gustuak asetu-ko dituzue. Zergatik ez eskatu laguntza apurtxo bat?

Ondo pasa. Zorionak eta urte berri on!!!



GABONETARAKO

erosketa **GIDA**

TXUKUNA

E. Garate, 1
943 82 13 08

- Barruko erropa eta pijamak (ume eta helduak)
- Emakumeen erreduktoreak (aukera handia)



VALENCIAGA



Zorionak eta urte berri on!

Bidebarrieta, 12
943 20 22 33



Zentro optikoa eta audifonoak



zorionak eta urte berri on!

- Opariak egiteko aukerarik onena

J. Etxeberria, 13
943 70 02 30

- Bono bereziak: Gabonetan opariak egiteko aukera bikaina




Bidebarrieta, 5

943 20 15 47

Ditare

35 urte zuekin



- Gizon eta emakumeendako barruko arropak
- Azpikogonak
- Mukizapiak
- Mertzeria
- Emakumeen bainujantziak
- Berezitasuna taila handitan!

Urkizu, 7

943 12 73 21



San Juan, 1
943 20 33 29

- Landareak
- Zentru naturalak eta lehorrak
- Etxerako zerbitzua





J. Etxeberria, 6
943 12 10 07

- Ume eta gazte moda
- Otik 16 urtera arte



Zorionak!



GRATZINA

Zuloagatarren, 1
943 82 15 77

laguinda

- Erropak eta osagarriak



Bidebarrieta, 18 **943 20 84 41**



- Jostailu hezigarriak
- Haur ospakizunak
- Ludoteka- Bebeteka
- Tailerrak

Urkizu, 3
943 54 36 97

Oihal

Ego Gain, 13
943 24 73 44

- Oihalak
- Konfekzioa
- Mertzeria
- Pijamak
- Batak

- Ume eta gazteendako moda **Kopina**



San Agustin, 3
943 20 41 81

umea

Errebal, 16
943 20 31 64





Guby

Birjiñape, 1
943 20 28 33

Zuloagatarren, 9
943 20 12 40

- Opariak
- Etxerako osagarriak
- Pinturak

baglietto

Errebal, 21
943 20 19 22



Jauregui

- Menajea
- Beira
- Opariak



San Agustin, 4

943 20 16 47



Bidebarrieta, 8
943 05 60 82

Zorionak eta urte berri on!



Estaziño, 3

943 10 58 10

klaus

- Denda
- Dekorazioa
- Erreformak
- Proiektuak



Zorionak eta urte berri on!

T. Etxebarria, 22 943 12 72 36



J. Etxebarria, 2
943 20 15 51

- Gusto eta adin guztietako moda

GU BY

KINKILA

Creaciones
Bebé

Bidebarrieta, 16
943 70 23 29



- Mertzaria
- Umeentzako jantzigintza



T. Etxebarria, 2

688 68 16 04

atelier11
CONCEPT STORE

dekorazioa
diseinua
VINTAGE
komplementoak



- Emakumeendako erropa
- Umeendako oparitoxoak
- Denetarikoa osagarriak
- Yoga eta Pilates
- Lagun Ezkurturako opariak
- Eibarko markak

Blas Etxebarria, 1
943 84 93 10

helmet house
CONCEPT STORE

Presta zaitez gabon hauetarako

Berria!

not+vello
fotodepilazioa larri / inkoarekin

Ego-Gain, 20
943 53 88 05

DEPILAZIOA
IZTERRONDOAK +
BESAPEAK + EMULSIO
HIDROPROTEKTOREA
35€ sartzean

FOTOGAZTETZEA
2 SAIO +
ALOE VERA MASKARA
+UR LIPOSOMATUA
45€ sartzean

- Aukera zabala oparietarako bonoetan!



Bidebarrieta, 28
943 20 79 73

- Pastelak, "txikiak", pastak, relleñoak, bonboiak, tartak...
- Enkarguak etxera



GABON



zoriontsuak!!!

Somos Eibarrek hirugarren garaipena jarraian bilatuko du bihar Ipuruan

Ereintzari Ipuruan eta Gure Auzneri Gasteizen irabazi eta gero, Fernando Fernandez mutilek urtea modu onenean amaitzeko



Fernando Fernandez entrenatzailea.

asmoa dute eta, horretarako, Anaitasuna menpean hartzen ahalegin-duko dira bihar 17:00etan Ipuruan. Behin hori jokatura, eibartarrek ez diote berriz ligari eutsiko urtarrilaren 13/14ko asteburura arte. Somos Eibar sailkapeneko erdialdean dago eta atsedendaldi hori ondo etorriko zaio min hartuta dituen jokariak berreskuratzeko. Haritza seniorretako bigarren taldeak Larra Taberna Pulpo hartuko du domekan Ipuruan, 12:00etan hasiko den partiduan, Gipuzkoako 1. Mailako neurketan. Emakumezkoen senior mailako Avia Eibar Eskubaloiak, bestalde, atsedendaldi hartuko du asteburu honetan.



Bi asteburutan "jai hartuta" foball-zaletu liga bueltan da

Elurrarengatik lehenengoan eta zubia zela-eta bigarrenean, foball-zaletuen liga geldirik egon da 15 egunetan. Orain artekoari erreparatuta, Txokok hartu du arrea eta lau puntu ateratzen dizkio Azkena Adahi bigarrenari, sei Ipur Sagardotegiari, zazpi Alkidebari eta bederatziredu Feredu Solutions taldeari, guzti hori hamar jardunalditan. Justu jardunaldi honetan lehen bi postuetan dauden Azkena Adahi eta Bar Txoko taldeek neurtuko dituzte indarrak domeka goizean (09:00etan), sailkapenari begira argi gehiago ekarri dezakeen partiduan. Ipur-ek Slow XOK izango du aurkari eta Alkidebak Reformas Hiru, biak ere bihar jokatzeakoak.

Deporreko mendizaleek urteko azken irteera egingo dute bihar Otxandiora

Ibilbide berezia aukeratu dute Eibarko Klub Deportiboko mendi bazterdekoek 2017ko irteerekin amaitzeko. Otxandioko gerra aztarnen inguruko ibilaldi zirkularra egingo dute: hasteko, pagadian gora Motxotegiren (799 metro) gailurraren bila joango dira, bertako begiratoki bikaina aprobeztatzeko. Ondoren Gaztelu edo Esnauritzagaina tontorrera helduko dira, jarraian Aiaogainera igotzeko eta, Presazelaiko pagadia gurutzatuta, berriro Otxandiora itzultzeko. Inguru guztia 1936ko Gerraren gudalekua izan zen eta Aranzadik berriki ikertu du eta, besteak beste, hainbat lubaki eta arma-biltegi izan zen harrizko borda ere katalogatu ditu. Irteerak 14 kilometro ditu, 396 metroko desnibelarekin, eta, egutegiko azken txangoa izanik, ohi bezala amaieran bazkaltzeko bilduko dira, oraingoan Otxandioko Unda jatetxean.




Otxandioko lubaki bat.



Txistorra Egunean saritua


Eibarko Txirrundulari Elkarteak urtero San Andresurretik antolatzen duen Txistorra Egunean egiten duen zozketako lehen saria Simon Etxaniztat izan da oraingotan eta, oterra osatzen zuten beste oparien artean, Oberena harategiak eskainitako 300 euroko txekea ere eraman zuen.



Eskiatzeko
DENBORALDIA

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

www.dariobus.com - clientes@dariobus.com



50.
urteurrena

DARIO
bus

Tel. 943 741 677

Gabon Trailaren laugarren edizioa jokatuko dute hilaren 24an

Kalamua Korrikalari Taldeak IV. Gabon Traila antolatu du datorren asteko domingaroko, hilaren 24rako. Ohikoa denez, eguna hasteko parte-hartzaile guztien argazkia aterako dute 08:30ean Klub Deportiboaren aurrean, eta nahi duenak Deporren bertan laga dezake motxila. Guztira 17 kilometro eta erdi egingo dituzte, 860 metroko goranzko desnibel metatuarekin. *"Hiru ordutik hiru ordu eta erditan egiteko moduko proba izango da"*, antolatzaileek diotenez. Azitaineraino jaitsi eta gero, Asola Berriko bidea hartuko dute eta, Amabirjinen pausoetatik, Arraten hartuko dute lehen atsedendia. Han Olabeko zelaitik Kalamuako bidera joko dute eta, behin Aiz-



Parte-hartzaileek aukera izango dute Kalamua tontorrean talde-argazkia ateratzeko.

keta lehen tontorra eginda, Akondiako lepora iritsiko dira Kalamua bigarren tontorrera heldu aurretik. Han ohiko talde-argazkia aterako dute eta Parlamentuan modu berezian ospatuko dute jaisten hasi aurretik. Betiko bidetik joko dute, hau da, Usartzatik eta Ixuatik pasatuko dira eta Urkoko barranko eta lepora doan bidea hartuko dute, kateen bidea. Amezabalegitik Iturburura joango dira pinu arteko jaitsiera

polita aprobetxatuta, gero Miraflores, Itzio eta Aldatzetik Klub Deportiboaren aurrean amaitzeko.

Klub Deportibo Eibarko mendi korrikalarietako urtea agurtzeko modu ezinhobea dela dinoskue eta, *kirol berri honetan* gero eta jende gehiago dabilenez, "ibibide erraz hori egiteko proposamena" egiten dute. "Datorrena ez da damutzen. Ez da zertan dena korrika egin beharrik".



Markel Alberdik irabazi zuen Sari Berezia azken edizioan.

Eibarko Kirol Sariak 23. edizioa egingo dute Gabon Zahar egunean

Urtero moduan, abenduaren 31ko eguerdian, 12:00etan hasiko den ekitaldian, ...eta kitto!-k herriko kirol klubetako urtean zehar egiten duten lanaren errekonozimendua egingo die, horretarako modalitate bakoitzean aukeratutako kirolariari saria emanaz. Coliseoan egingo den jardunaldi horretan beste sari batzuk ere izango dira jokoan: Sari Berezia eta Sustapen eta Euskara sariak.

Katu Kale igoera faserako sailkatu da dagoeneko

Herriko saskibaloitako taldeak bide ezin zuzenagoa egin du orain arte, jokatutako partidu guztiak irabazita eta, ligako lehen fasea amaitzeko bi partidu besterik falta ez direnean, hiru multzoetako lehen bi sailkatuak hartuko dituen bigarren fasean dago honetako. Katu Kale, gainera, multzoko buru dugu eta hurrengo bi partidutan aukera izango du gutxiago jokatzen dutenei minutu gehiago eskaintzeko. Ipuruan jokatu beharreko azken partiduan eibartarrek 65-56 irabazi zioten Tolosako Take Coach-i, hiru bajarekin jokatuta eta, beste bederatziren artean, bi erdipurdi zeudela. Atsedendian partidua 35ean zegoen berdinduta eta, amaierarako hiru minuturen faltan, berdinduta jarrai-



tzen zuen, hor 56ra. Iñaki Sanchezek zuzentzen duen taldeak eskuratutako 9-0ko azken partzialak erabaki zuen neurketa eta Will (22 puntu), Unai (15) eta Aitor (14) izan ziren saskitzaile onenak.

Garbiketak a domicilio
ESKAITZA 644 726 377 Garbiketa produktu profesionalak barne

- Zure etxea (110 m²raino) goitik behera 225€ %35eko deskontuarekin 150€
- 4 ordurako garbiketa-BONOA zure etxe/lokalean, plantxa eta sukaldatze aukera 72€ %30eko deskontuarekin 55€

San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



Akziodunek erabakiko dute udaberri aldean kirol-hiria non eraiki

Herenegun Coliseoan egindako Eibar Foball Taldearen akziodunen batzarrean hori izan zen bertan hartutako erabaki garrantzitsuenetako bat. Kirol-hiriaren proiektua da Eibarrek esku artean duen estrategietako bat, eta akziodunek erabakiko dute non jarri, ondo bidean udaberriaren egingo den ezohiko batzar batean. Bi aukera egongo dira: gurean, Eibarren egitea; edo eskualdean, Debabarrenako herri batean. Bestalde, Amaia Gorostiza presidentea esan zuenez, "Atxabalpeko instalazioen alokairua 2021era arte" luzatu dutez, horrek denbora nahikoa eskaintzen dio klubari kirol-hiria egi-

teko lanekin amaitzeko. Bestalde, akziodunek gehiengo osoz babestu zuten Kontseiluak egindako lana eta ez kontuek ezta estatutuen aldaketek ere ez zuten inongo eztatidarik piztu Coliseoan egon zirenen artean. Horrez gain, ahalmena eman zitzaion Kontseiluari aurrekontuak onartzeko Batzordetik pasatu barik. Denboraldi honetan 55 milioi euroko aurrekontua izango du klubak, inoizko handiena, eta Gorostizaren zuzendaritzak 15 milioi euroko irabaziak izatea espero du. Sasoi amaieran, berriz, mendebaldeko harmaila berritzeko asmoa dute; horrela, 8.100 ikusleraino handituko da Ipuruia.

Uzta aberatsa jaso zuten herriko foball taldeek azken asteburuko partiduetan

Jardunaldi bikaina izan zen azkena herriko foball taldeentzat eta, horrela, 1. Mailan Mendilibarren mutilek Gefafen lortutako berdinketarekin batera, beste talde nagusien garaipenak aipatu ditzakegu: emakumezkoen 2. Mailan, Eibarrek 3-2 irabazi zion Pradejoni bitan atzetik joan eta gero, 2. B Mailan Vitoria filialak denboraldiko garaipen argiena eskuratu zuen Lealtad-en aurrean (3-0), emakumezkoen Lurralde Mailan Eibarrek 0-1 irabazi zuen Bergaran eta, Erregionaleran pasatuta, Gorengoan mailan Eibar Urkok 4-0 garaitu zuen Ikasberri eta, azkenik, 1. Erregionaleko derbian, Urkik 2-0 irabazi zion Eibartarrak taldeari.

Bestalde, gazteagoen mailetara jotzen badugu, jubeniletan ere plenoa egin zuten Eibarko taldeek: Ohorezko Maila Nazionalean Eibarrek San Juani irabazi zion 1-2, eta Ohorezko Mailan, Eibar Ilintxari Legazpin 0-2 nagusitzen zitzaion bitartean, Urkik 3-0 irabazi zion Debako Amaiak Bat taldeari. Eta kadeteetan ere, Euskadiko Ligan Eibarrek 5-0 garaitu zuen Lakua.



Sufrimendu askorekin izan bazen ere, Eibar garaile izan zen berriro.

www.kolorlan.com 667 54 89 16

KOLORLAN
 PINTURA LANAK S.L.

Promozio bereziak **IBONE ESTETIKA**ⁿ

GABONETAKO OPARI TXARTELAK PREST!

- **MIKROPIGMENTAZIOA**
 Bekainak, ezpainak edo eyeliner: 200€
- **DIODO LASERRA**
 Bularra: 90€
 Hanka osoak: 90€
 Izterondoak + Besapeak: 59€

Romualdo Galdos, 10
 Tel. 943 20 16 01

25 URTE ZUEKIN!

f M Funeraria-Ehorzetxe
Mugica

EIBAR

Beilatokia
 Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
 SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**



RAMON BEITIA: Angel Zapico, bizitza guztia Eibar FT-ri emana, lehen mailako pertsona izateaz gain.

Eibartarrok eskua eman genion euskerari



Horixe izan delako, hain justu, euskalgintzako taldeek aurtengo Euskeraren Eguna ospatzeko aukeratu duten goiburua: "Emon eskua euskeriari". Hotz esnatu zuen egunak, oso hotz, baina antolatzaile eta parte-hartzaileen gogo eta ilusioan ez zen igarri. Aurtengoak Eibarren Akebai plataformaren babes eta laguntza jaso du, eta ekainaren 22ko Guinness errekorren eguna gogoratzu eta auzoetako bizilagunak berriz ere aktibatzen asmoarekin, hiru auzunetatik irten ziren herritarrak kalejiran eta kantuan, Untzagan elkartu arte. Kantu-giroan, eta Deporrekoei banatu zuten salda beroa sekula baino gehiago eskertuz, 8 horma-irudi osatu ziren, eskuak margoan busti eta oihal erraldoietan inprimatu ziren, euskerari eskua emanez. Eguerdian herri-bazkaria, karpan, eta salgai jarritako 400 txartelak denak salduta. Menua Bizimina elkarteok prestatutako paella, postrea, pastak eta kafea, eta berriz ere jai-giroan murgilduta, Parrapas taldearekin erromeria. Ikuskizun biribila hori ere. Eta bazkaltzeko txanda noiz ailegatuko txintxo-txintxo itxaron zuten moduan, dena jasotzeko momentua ailegatu zenean ere, eibartarrak prest. Eskerrik asko antolaketan lagundu duzun denoi eta eskerrik asko Eibarko herriari, lau haizetara eta ozen oihukatu dugulako berriz ere euskeraz bizi nahi dugula.



ARGAZKIAK:
Maialen Belaustegi
Silbia Hernandez
Ekhi Belar
Ana Aizpurua







Gaztelupeko Hotsaren bultzadaz irailen hasi zen musika-zikloaren proiektuak gaur biziko du urteko azken ekitaldia Portalean. Orain domekatik barixakura pasa duten kontzertua arratsaldeko 19:30ean hasiko da.


JULIAN MAESO orojole eta konpositorea gaur Portalean

The Sunday Drivers bezalako rock eta musika beltzeko bandekin zaildua estatuko oholtzetan, hots eta abesti sortzaile bikaina dugu Julian Maeso. Ezagutza zuzena eta sakona du rockean batzen diren genero desberdinez, eta horretatik dator tresnalaria konpositore bihurtzea. 2012an *Dreams are gone* argitaratu zuenean egin zuen barkakako debuta: kantari, konpositore eta jotzaile agertu zen orduan era zaharrean grabatutako kalitate handiko disko batekin. Hor nabaritu ziren bere karreraren oinarriak izan diren The Band, Cream, alt country, blues-rock, soul, Bob Dylan, Van Morrison, Stills, Nahs & Youngen oihartzunak.

Sormena, arnasa eta askatasuna dira bere abestien ezaugarriak eta, horrez gain, Maeso guztizko musikari azaltzen zaigu: ahotsa, Hammond organoa, gitara elektrikoak eta akustikoak, baxua, jazpana, Mellotron, Wur-

litzer, pianoa, ukelelea, ahosoinua, melodika... zer ez du kontrolatzen berak!

Estiloen uztarketak eskaini zizkigun *One way ticket to Saturn* bigarren albumean ere, 2014an. Hartan, harrigarriko indarrez, 70eko urtealdian funkak eta rockak hedatzen zuten baikortasunak hartzen du lehen bluesaren nostalgiak zeukan eremua. Berriki publikatutako *Somewhere Somehow* diskoan, berriz, Maesok zainik basatienetik atera ditu indarrak rockaren amorratu gisa, su eta kea nagusi abesti guztietan. Desberdinak dira abestiak, desberdinak dira hasierak eta amaierak, eta entzulea bidaiaren protagonista bilakatzen da: nondik irtetzen den jakinda ere, ez du asmatuko non amaituko duen. Maesoren musikaren funtsak soulean eta rockean daude, baina funka, countrya eta jazzarekin kontuan hartzen ditu, sintetizadoreekin eskaintako magiarekin.



Andres de Egiguren Orkestraren emanaldia gaur Coliseoan

Aita Madinaren musika ardatz izango duen proiektu berria aurkeztuko du gaur Coliseo antzokian Pedro Palacinek zuzentzen duen Andres de Egiguren Orkestrak. Zuzendariak berak aurreratutakoaren arabera, "gaurkoa oso emanaldi berezia izango da. Orkestrarekin batera, abesbatzek, Cristina del Barrio mezzosopranoak eta jatorri eibartarra duen Ander Telleria akordeoi-joleak ere hartuko dute parte eta beste sorpresa batzuk ere egongo dira". Kontzertua 20:30ean hasiko da eta sarrerak 12 euro balio du (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Ibon Muñoaren libururik berriena aurkeztu dute

Martitzen arratsaldean aurkeztu zuten "Udaberrian biziko gara", Ibon Muñoa Arizmendiariaren liburu berria Beleko tabernan. Ataramiñek argitaratu eman duen lana Durangoko Azokan egon da salgai eta 330 orrialdetan preso eibartarraren bertsoak biltzen ditu. Azaleko irudia Mikel Zarraberena da eta hitzaurrea, berriz, Amaia Ereñagak idatzi dio. Aurkezpen-ekitaldiak jende asko batu zuen eta, taldeko argazkia egin eta jarraian, liburua aurkeztu zuten, musika eta bertsoek lagunduta.



Deporreko argazkilarien lanak Portalean ikusgai daude

Urtarrilaren 7ra arte egongo da Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoen erakusketa kolektiboa ikustera joateko aukera Portaleko erakusketa-aretoan. Oskar Baglietto, Jose Luis Irigoien, Fernando Retolaza, Bakarne Elejalde, Virginia Arakistain, Fernando Alonso, Einer Rodriguez, Fernando Solana, Pedro Arriola, J.J. Lucena, J.I. de Castro, Jose Vila, J.A. Palacios, Enrique Lorenzo, Enrique Albistegi, Jose Valderrey, J.I. Aizpurua, Federico Cuenca, Silvia Tardio, Jon Jimenez, Zigor Astigarraga eta Mikel Urionaguena taldeko kideen argazki-erakusketa martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era zabalduko dute.

Kike Amonarrizen hitzaldiarekin hasiko da "Hamaika berbaldi"

Abenduaren 19an, datorren martitzenean, Kike Amonarriz izango dugu gurekin solasaldian, 19:00etan udaletxeko patioan. Jorratuko duen gaia honako hau da: "Euskara bidegurutzean, baita Eibarren ere". Saio honen hasiera emango dio "Hamaika berbaldi" ekimenari. Horren harira, 2017ko abenduan hasi eta 2018-ko abendua bitartean 11 hitzaldi, tertulia edota mahainguru egingo dira. Arduradunen berbetan, "hamaika saio horien helburuak ere hamaika dira: Eibarren AKEBAlko kideok motibatzea/aktibatzea eta euskararen aldeko diskurtsoa berritzea, euskaraz bizi nahi dugunok ahaldundutzea, euskaraz bizi ez den jendearengana iristea, "11 egun euskaraz" Euskal Herri mailako egitasmorako eibartarrak martxan ipintzea...". Ekitaldia euskaltzale guztientzat zabalik izango da.



"Jira Bueltan" liburuxka eta DVDa oparituiko diete LH1. mailakoei

Udalak "Jira Bueltan: betiko 50 kanta eta jolas" liburuxka eta DVDa banatuko ditu opari gisa Lehen Hezkuntzako 1. mailako umeen familien artean. Egileak Badihardugu eta Ahotsak.eus dira eta lana Eibar, Elgoibar, Aretxabaleta eta Eskoriaztako udalen babesarekin egin dute, "gure aurreko belaunaldiei jasotako kanta eta jolasak berreskuratzea eta biziberritzeko". Liburu zein DVDan bildutako kanta eta jolas guztiak Ahotsak Ikasgelan webgunean herritar guztien eskura daude.



Gabonetako kontzertua emango du Musika Bandak domekan

Eibarko Cielito Musika Bandak domekan emango du Gabonetako kontzertua, 12:30ean Coliseoan. Oraingoan zuzendaria Iñaki Orbegozo izango da eta eskainiko duten egitaraua honako hau da: "Gerona" (pasodoblea, S. Lope), "Basque Rhapsody" (aukeraketa, M. Shelton), "El Trust de los Tenorios" (aukeraketa, J. Serrano), "Mary Poppins" (BSO, R.M. Sherman), "The Olympic Spirit" (abestia, J. Williams). Beste batzuetan egiten duten bezala, ez badu euririk egiten musikariek kalejira egingo dute kontzertuaren aurretik, 11:15 aldera.



Gaztetxe tropikala

Eibarko Gazte Asanbladak kultur aniztasunari eskainitako jaia antolatu du zapatu gauerako: 22:00etatik aurrera cumbia dantzagarriek beteko dute gaztetxea eta, giroan bete-betean murgiltzeko, mojitoak eta jolasak ere eskainiko dituzte.

Poesia Zapatua Itzamnan

Maite Lorenzok gidatzen duen Itzamna Poesia Tailerrak bihar liburu aurkezpena hartuko du, 18:00etatik aurrera. Jaiotzatik bihotz arazoak izan dituen Nagore Gutierrez Ruizek idatzi duen "Corazón sin límites" lana aurkeztuz Agurtzane Estrada eta Iñaki Urdangarin Iraeta, "Sentimientos de cristal" elkarteko ordezkariak etorriko dira.

Ez da esleitu J. San Martinen bekarik

Arkeologia ikerketa esparru zuen Juan San Martin bekarik ez dute emango, "aurkeztutako bi proiektuak aztertu eta epaimahaia azaroaren 21ean batu eta gero, aho batez erabaki zuen aurkeztutako proposamenen kalitatea nahikoa ez delako beka ez esleitzea".



LOREA ARAKISTAIN

Gure kaiola

"Ze guapa zauden. Ze guapo zauden. Zer da narratsa hemen ta zer da elegantea? Zeinek esan behar dizu oain itsusia zeala?"

Eibar narratsa dela kontatu digute klik baten truke.

"Zeinek marraztu digu koadrantea? Zein dao erotuta ta zein da kabala?"

Klik baten truke negozioa egiten duten horiek dira kabalak? Albisteak asmatu, sare sozialetan iragarri eta klik baten truke ordaintzen dutenagatik baino gehiago kobratzen dute albisteak inguratzen duten bideo eta banerrak erakustearen truke. Clickbait esaten zaio estrategia honi. Eta, asko dira negozio-eredu honetan oinarritzen diren albiste-webgunek.

"Gezurren saren eroitzeie makina bat, goitik datorren papila jaten"

Gezuraren sarean erori direlako zabaldu dute gainerako komunikabideek Eibar itsusia dela. Rankinek ondo funtzionatzen dutelako. Edertasun rankinek oso ondo funtzionatzen dutelako!

"Gizontasun eredu nik izan nun Action Man, zure emetasun modelo Barbie bat zan"

Edertasunaren eredu pertzepioari, kulturari, estereotipoei, hezkuntzari lotuta dago eta subjektiboa da.

"Eredu bezela euki diteun figura patriarkalak. Pornografia izan da gure heziketa sexuala"

Bada, entzun ondo: ez daukat titi handirik eta nire herriak ez dauka itsasorik.

"Ta artaldeak esan dezala Beeeee"

Gure kaiola (Glaukoma)

Mikel Gorosabelen bakarkako proiektu berria

"Barne basoan barna" izenburuko lana emango du argitara Mikel Gorosabel eibartarrak hilaren azken egunetan. Bakarkako proiektu berriak Barnerecords-en eskutik ikusiko du argia. Egilearen berbetan, "11 idazlek 11 kantu jantzi dizkidate beraien hitzekin. Emozio haundiko esperientzia izan da. Asier Serranori bururatu zitzaion ideia eta berak koordinatu du proiektua. Beldurra gai orokortzat hartuta eta lehen pertsonan 11 idazle hauei, zozketa bidez bidali diegu kanta bana eta bakoitzak bere ikutua eman die nik sortutako doinuari. Bakoitzak bere erara gehienok bizi ditugun beldurraz azaleratuz".



entzuteko horietakoa.... Entzulea lehenengo kantatik azkeneraino melodia eta hitzez harrapatzeko eta une goxo bat igarorarazteko intentzioarekin". Lana Ez Dok tabernan aurkeztuko du, pase bitan (abenduaren 29an eta 30an).

entzuteko horietakoa.... Entzulea lehenengo kantatik azkeneraino melodia eta hitzez harrapatzeko eta une goxo bat igarorarazteko intentzioarekin". Lana Ez Dok tabernan aurkeztuko du, pase bitan (abenduaren 29an eta 30an).

Mikel Arrillagak 12. Balendin Enbeita bertsopaper lehiaketan helduen mailako 2. saria jaso du



Mikel Arrillaga Bereziartua eibartarrak bigarren saria eskuratu du ALBE Algortako Bertsolari Eskolak antolatutako 12. Balendin Enbeita bertsopaper lehiaketan, helduen mailan. Lehen saria Fredi Paiak irabazi du eta hirugarrena, berriz, Ekaitz Goikoetxeak. Saria banatzeko ekitaldia aurreko zapatuan izan zen, Getxoko Basalbo jatetxeak hartu zuen 2017ko ALBE Galan.

Musika Eskolako soinu ikasleak pozik itzuli dira Arrasateko Hauspoz akordeoi-lehiaketatik

Juan Bautista Gisasola Musika Eskolan Marisol Arrillagarekin soinu ikasten ari direnak Arrasaten egon ziren aurreko zapatuan, han antolatutako Hauspoz akordeoi-lehiaketetan parte hartzen eta irakaslea oso pozik dago euren jardunarekin: "Azken bi hilabete hauetan ikasleek gogotik jardun dute lanean, bakarka zein taldeka, eta Arrasaten emaitza politak lortu dituzte. Beraz, zorionak denei!".





Blues kontzertua zapatuan ERMUAN

Bihar 20:00etan blues kontzertua emango dute The Romanticos & Paul San Martin taldekoek Ermuan, Lobiano Kultur Gunean, Ermuko Udalak antolatuta duen emanaldian. "Good Vibrations" da The Romanticos taldearen hirugarren diskoa. Aldi berean, egilearen heldutasuna eta sasoi betearen erakusten dituzten abestiak dira; berretsi egiten dute liderraren etengabeko bilakaera gitarra-jotzaile, abeslari eta musikagile gisa. Eta Paul San Martin gaur egun bluesaren piano tradizioan murgilduta dabil, stride eta boogie woogie bezalako estiloak lantzen. Sarrerak 8 euro balio du.



Abesbatza eta Elgoibarko Banda SORALUZEN

Bihar iluntzean, 20:00etan, Soroluzeko Arane kiroldegian kontzertua emango dute elkarrekin abesbatzak eta Elgoibarko Musika Bandak, Ezoziko Ama Abesbatzaren 25. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan. Gorka Mujika Urainek zuzenduko duen emanaldian egitarau honi jarraituko diote: "Lord Tullamore" (Carl Wittrock), "Dry your tears, Afrika" (Jhon Williams), "A concert celebration" (Andrew Lloyd Webber), "Txoria, txori" (Iñaki Urkizu), "Lau teilatu" (Iñaki Urkizu), "Kantaldia" (Iñaki Urkizu) eta "White Christmas" (Irving Berlin).

eguraldia (EUSKALMET.NET)

| Ostirala | Larunbata | Igandea | Astelehena | Asteartea |
|----------|-----------|---------|------------|-----------|
| | | | | |
| | | | | |

hildakoak

- Julia Nestares Chana. 48 urte. 2017-XII-3.
- Miguel Silva Perez. 73 urte. 2017-XII-4.
- Antonio Azpiazu Larrañaga. 89 urte. 2017-XII-5.
- Eli Batiz Olabegoia. 61 urte. 2017-XII-5.
- Serafin Vega Taborga. 85 urte. 2017-XII-5.
- Rufino Amesti Iturbe. 89 urte. 2017-XII-6.
- M^a Carmen Aristorena Larrañaga. 87 urte. 2017-XII-6.
- Jose Claver Jimenez. 88 urte. 2017-XII-7.
- Agueda Fernandez Garcia. 86 urte. 2017-XII-8.
- Paulina Aranguren Olaizola. 92 urte. 2017-XII-9.
- Jose Ignacio Larrañaga Aranegi. 61 urte. 2017-XII-12.
- Isabel Montoya Lopez. 92 urte. 2017-XII-12.

jaiotakoak

- Elene Alcoba Abio. 2017-XI-25.
- Daenerys Sanchez Del Rosario. 2017-XI-29.
- Rubi Sanchez Del Rosario. 2017-XI-29.
- Unax Ferreiro Madinabeitia. 2017-XI-30.
- Malen De la Fuente Del Ejido. 2017-XII-2.
- Dara Rojo Etxeberria. 2017-XII-3.
- Arantza Hernandez Gonzalez. 2017-XII-3.
- Jon Astarloa Susaeta. 2017-XII-3.
- Rayhan Errahil Cossio. 2017-XII-6.
- Peio Arana Abanzabalegi. 2017-XII-6.

farmaziak

- Barixakua 15
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Zapatua 16
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Domeka 17
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Astelehena 18
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Martitzena 19
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Eguaztena 20
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguna 21
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 22
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)

GAUEZ BETI - 2017 AN-
 Mandiola (S. Agustin, 3)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 5 | 6 | 8 | 4 | 9 | 3 | 2 | 1 |
| 2 | 1 | 9 | 5 | 3 | 6 | 4 | 8 | 7 |
| 4 | 8 | 3 | 7 | 1 | 2 | 9 | 6 | 5 |
| 6 | 3 | 7 | 4 | 2 | 5 | 8 | 1 | 9 |
| 1 | 9 | 8 | 6 | 7 | 3 | 5 | 4 | 2 |
| 5 | 2 | 4 | 1 | 9 | 8 | 7 | 3 | 6 |
| 9 | 4 | 5 | 2 | 8 | 1 | 6 | 7 | 3 |
| 3 | 7 | 2 | 9 | 6 | 4 | 1 | 5 | 8 |
| 8 | 6 | 1 | 3 | 5 | 7 | 2 | 9 | 4 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|--|---|
| | | 9 | | 5 | | 4 | | |
| 5 | | | 1 | 9 | | | | |
| 8 | | 7 | | 6 | | | | 9 |
| | | 8 | 6 | | | | | |
| 7 | | | | | | | | 5 |
| | | | | 4 | 7 | | | |
| 9 | | | 8 | | 3 | | | 6 |
| | | | 5 | 3 | | | | 1 |
| | 7 | | 2 | | 4 | | | |

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udalitzategia.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 15**KONTZERTUA**

19:30. Julian Maeso Band taldea. Portalean.

KONTZERTUA

20:30. Andres de Eiguren Orkestra. Coliseoan.

Zapatua 16**LIBURU AZOKA**

10:00/20:00. Erabilitakoak, Eibar-Sahara Elkartearen eskutik. Untzagan.

GABONETAKO HAUR-PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

EIBARLAB'S

15:00/19:30. "Irratizkina: entzun zaitzatela!". Urkizun (Leonardo Azpiri eraikinaren azpian).

TAILERRA

17:00. Gabonetako apaingarriak egiteko (doan, publiko guztientzat). Armagintzaren Museoa.

OLENTZERO

18:00. Olentzero eta Mari Domingi bisitan joango dira. El Corte Inglesean (beheko solairuko sarreran).

POESIA-ZAPATUA

18:00. "Corazón sin límites", Nagore Gutierrez Ruizen liburu-aurkezpena, Agurtzane Estrada eta Iñaki Urdangarin Iraeta, Sentimientos de Cristal elkarteko ordezkarien eskutik. Itzamna poesia tailerrean (B. Sarasketan).

KONTZERTUA

23:32. Moonshine Wagon taldea. Ez Dok tabernan.

Domeka 17**LIBURU AZOKA**

10:00/20:00. Erabilitakoak, Eibar-Sahara Elkartearen eskutik. Untzagan.

EIBARLAB'S

11:00/15:00. "Irratizkina: entzun zaitzatela!". Urkizun (Leonardo Azpiri eraikinaren azpian).

ANIZTASUNAREN ASTEA

11:00/15:00. Astea agurtzeko jaialdia: musika, informazioa, tailerrak, gastronomia... Untzagan.

GABONETAKO KONTZERTUA

12:30. Eibako Cielito Musika Banda. Coliseoan.

Martitzena 19**IKASTEN**

10:00. "Eragin euskaldunean opera eta zarzuela" hitzaldia, Jose Fran Gutierrezen (Zientzia Zientifikoetan lizentziatua eta Armeria Eskolako eta institutuko irakasle ohia) eskutik. Armeria Eskolan.

HITZALDIA

19:00. "Euskara bidegurutzean, baita Eibarren ere", Kike Amonarrizen eskutik. "Hamaika berbaldi" ekimenaren barruan. Udaletxeko patioan.

hamaika BERBALDI**KIKE AMONARRIZ****Eguaztena 20****DOKUMENTALA**

19:00. "Pasaiako badia"-ren aurkezpena, egileekin. Arrate Kultur Elkartean.

GABONETAKO KONTZERTUA

19:00. J.B. Gisasola Musika Eskola. Coliseoan.

Eguena 21**SANTO TOMAS**

12:30. Kaleetan Kantuz abesbatzaren irteera, Santo Tomas ospatzeko. Txistorra. Beheko Toki jubilatu etxean.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantzak (berriak).
18:00. Dantzak (maila altuak).
19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Erakusketak**Abenduaren 29ra arte:**

– "XV. URTEURRENA ION FIZ GOI-MAILAKO JOSKINTZAN". (Armagintzaren Museoa)

Urtarrilaren 7ra arte:

– EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEA. (Portalean)

– "JOSE KAREAGA - ARTISAU/ARTISTA 1930-2008". (Portalean)

zineaColiseoan**(1 ARETOAN)**

16an: 17:00, 19:45, 22:30
17an: 17:00, 20:00
18an: 20:30

"La librería"

Zuzendaria: Isabel Coixet

**(2 ARETOAN)**

16an: 17:00, 19:45, 22:30
17an: 17:00, 20:00
18an: 20:30

"El sentido de un final"

Zuzendaria: Ritesh Batra

**(ANTZOKIAN)**

16an: 16:30, 19:30, 22:30
17an: 17:00, 20:00
18an: 20:30

"Star Wars. Los últimos Jedi"

Zuzendaria: Rian Johnson



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, JUNE, neska haundi!!!, aurreko egunian 8 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, AMAIUR!, aurreko barixakuan 10 urte bete zenduaz-en-eta. Musu potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NOAH, astelehenian urtetxua egin zenduan-eta. Laztan haundi bat tio lñigo eta amama Arantxaren partez.



Zorionak, GORKA, haraiñegun 2 urtetxo bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NAIA, astelehenian 6 urte egingo dozuz-eta. Musu bat, printzesa, aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, MALEN, gure etxeko sorgintxuk haraiñegun urtetxua bete zeban-eta. Musu haundi bat, pixpiliñ, etxekuen partez.




Zorionak, MARKEL, hillaren 8xan 8 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, OIHAN, hillaren 1ian 9 urte egin zenduaz-elako. Etxeko guztion partez.



Zorionak, JULEN!!, astelehenian 9 urte egingo dozuz-eta. Zorionak famelixa guztiaren partez!



Zorionak, MIKEL!, martitzenian 2 urte egin zenduaz-elako. Asko maite zaittugu! Etxekuen partez.




Zorionak, MIREN, domekan 5 urte beteko dozuz-elako. Musu haundi bat amatxo eta aitatxoren partez.




Zorionak, MIREN, astelehenian 6 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien partez.




2 urtetxo bete dozuz, printzesa! Zorionak, JULE, famelixa guztiaren partez eta patxo potolua aitatxo eta amatxoren partez. Paaaaa!



Zorionak, GAIZKA, hillaren 9xan 8 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Alaitzen partez.




Zorionak, JULEN, atzo 7 urte egin zenduaz-en-eta. Heldu zan eguna azkenian!! Laztan haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, URKO Lapeyra Ibarra, hillaren 11n 2 urtetxo bete zenduaz-elako. Patxua etxekuen eta, batez be, Mikelen partez.




Zorionak, NORA!!, etzi 11 urte egingo dozuz-eta. Patxo potolua gurasuen eta, batez be, Iker, Maialen eta Josuren partez.



Zorionak, ANER, bixar 2 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez. Ondo baiño hobeto pasa eguna!



Zorionak, MARA (gaur 8 urte egiten dozuz-eta) eta ALAIN (domekan 5 beteko dozuz). Musu pillo bat etxekuen partez.



Ongi etorri, PEIO! Adurra darixola diituzun etxekuen partez.




Zorionak, MIKEL, atzo 5 urte egin zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MARTINTXO, atzo lehelengoko urtetxua bete zenduan-eta. Etxekuen partez.



Ongi etorri, UNAX! Musu potolo bat aitatxo eta amatxoren partez.



San Andres egunak IZAR ekarri desku. Ongi etorri! Eta musu haundi bat etxekuen eta, batez be, LAIDA ahiztiaren partez.



Zorionak, PATXI eta MADDI!, astion zuen urtebetziak izan dira-eta. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez. Segi fiñ eta jator!



Zorionak, bikote! JULENE (12 urte San Andres egunian) eta EÑAUT (10 egingo dozuz astelehenian). Musu haundi bat etxekuen partez!

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai erdialdean. 99 m². 1. solairuan, kontsulta edo bulegoetarako egokia. Pegora berriztua. Merke. Tel. 656-723437.

1.2. Errentan

- Pisua alokairuan hartu nahi dut Eibarren. Tel. 632-411069.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 632-426847.
- Nire zortzi urteko umeak eta nik pisua behar dugu alokairuan Eibarren. Tel. 603-783176.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Trailerra salgai, lanarekin. Tel. 686-466966.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Lokala alokagai Birjiñape 1-ean, erosteko aukerarekin. 33 m². Guztiz konponduta. Alokatzeko: 460 euro. Saltzeko: 100.000. Tel. 688-678934.
- Garajea alokagai Asua-Errekan. Tel. 616-959625.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-502177.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 682-277198.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka edo arratsaldean. Tel. 646-821678.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Tel. 631-343232.
- Emakumea eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. Tel. 657-479770.
- Emakume langile eta arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko (etxean edo ospitalean) eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 603-514085.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-551711.
- Mutil langilea eskaintzen da sukaldelaguntzaile moduan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 622-321095.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gaez ere. Erreferentziak. Tel. 677-868887.

- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Interna. Tel. 600-836168.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Esperientzia. Tel. 632-174225.
- Emakume euskalduna eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 629-889465.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Tel. 643-032205.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez etxeko lanak egiteko. Tel. 648-803352.
- Mutila eskaintzen da piezak muntatzeko eta garraiolari moduan jarduteko. Esperientzia. Tel. 651-038503. Ibon.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi zabala. Tel. 631-167908.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta formazioa. Tel. 602-161496.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 612-245326.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-788556.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 612-288257.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 622-684289.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 663-430606.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 602-047812.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-738823.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 633-401678.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 687-103006.
- Neska eskaintzen da edozein lanerarako. Tel. 631-340357.
- Emakumea eskaintzen da tabernan edo beste ezertan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 673-403149.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-891709.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-949742.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako, sukaldelanak eta plantxan egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 661-188580.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-001083.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Tel. 602-805869.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 609-312279.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-902417.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-953013.

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 657-831093.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 617-350350.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-201603.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez etxeko lanak egiteko. Tel. 617-935160.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 631-907532.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 632-042847.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 602-064084.
- Mutila eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko, dendetako banatzaile moduan etb. Tel. 688-302653. Manuel.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 658-158036.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-700803.

4.2. Langile bila

- Sukalde-laguntzaile behar dute Eibarko taberna batean. Tel. 665-308025 eta 685-286303.
- Kamarera/o behar da Portalea jatetxerako. Esperientziarekin. Tel. 943-206868.
- Eibarko Laukolan SL enpresarako proiektuak garatzeko programatzailea behar du. .NET eta .SQL jakitea ezinbestekoa. Bidali curriculum: lkl@laukolan.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Cometa Fenix 400 haizezko karabina salgai. Kutxa eta guzti. Ia berria. Tel. 688-803449.
- Ohe artikulatua salgai. Motorizatua, hiru mugimenduekin. Gutxi erabilita. Tel. 635-746250. Ana.
- Bi bizikleta salgai, 12-16 urte bitarteko-entzat. Gutxi erabilita. 100 euro bakoitza. Tel. 650-022371. Itziar.

6.2. Eman

- Mikro-uhina emango nuke. Egoera onean. Tel. 649-360866.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Kartera bat, diruarekin, aurkitu nuen aurreko astean Urkizu parkean. Tel. 943-120077.
- Ford autoko giltza galdu nuen. Udaltzaingoan laga edo deitu, mesedez. Tel. 631-330218.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

Hyundai H PROMISE



i30 Klass
1.4 MPI 100cv
9.900€
4€/egunean

ix20 Klass
1.4 CRDI 90cv Diesel
9.900€
4€/egunean

Zure i30
edo ix20,
gosari baten prezioan



5 URTE
KM-ETAN MUGARIK
GABEKO GARANTIA



Hyundai ix20 gama: CO² emisioak (gr/km): 110-150. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,2-6,5.
Hyundai i30 5p: CO² emisioak (gr/km): 94-169. Kontsumo mistoa (l/100km): 3,6-7,3.

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan ix20 5P CRDI 1.4 90CV BD KLASA (66,2kW) eta i30 5P MPI 1.4 110CV BD KLASA 73,6 KW-erentzat. Eskaintza baliagarria stock-a amaitu arte. BEZ, garraioa eta 1.600€-ko deskontua Santander Consumer EFC S.A-k aurrez aztertu eta onartutako ibilgailuaren finantziarioari lotuta, 8.000€ gutxienez, 60 hilabeteko gutxienean epean eta 36 hilabeteko gutxienean egonaldiarekin. Kalkulatutako eguneroko kuota: 8.000 € 120 hilabetetan. Eskaintza 2017/12/31ra arte da baliozkoa.

H PROMISE-k zure i30 edo ix20-a eskaintzen dizu prezio eta baldintza hobereenetan. Orain, gainera, Hyundai-ren Cinking-a duzu barne:

- 5 urteko bermea erosketaren unetik eta kilometroetan mugarik gabe
- 5 urtetarako asistentzia errepedean

OARSO CAR

HYUNDAI KOITZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIZKOARAKO
WWW.OARSO-CAR.COM



ELGOIBAR

Olaso Polig., 17 **943 74 14 80**

LINTZIRIN-OIARTZUN

Lintzirin Poligonoa, 1 **943 49 48 30**

BEASAIN

Errepide Nazionala, 1 **943 80 40 54**

Gabonetako OTARRA



Eguazten eguerdian El Corte Ingles-ean egindako zozketaren unea.



Eskerrik asko Eibarko herriari!!!
Lortutako dirua EIBARREN
EUSKARAREN ALDE erabiliko dugu

Eskerrik asko ere zuen laguntzarengatik:

El Corte Ingles, Isasi okindegia, Mujika eta Otegui harategiak, Echetto eta Arriola prentsa, Maria Ospitxal (Calbeton), Bolintxo, AEK eta Udal Euskaltegia, Izadi loradenda, Lamia ileapaindegia eta Kultu

2.000 €ko balioa duen

10.260

zenbakiarentzat

abenduaren 28rako

ez bada irabazlea aurkezten, ordezkokoak sartuko dira jokoan, orden honi jarraituz:

7.984 abenduaren 29tik
urtarrilaren 13ra

2.769 urtarrilaren 14tik
urtarrilaren 29ra

4.202 urtarrilaren 30etik
otsailaren 14ra

%
des
kon
tua

30

**EGUZKITAKO
BETAURREKOEN
bilduma BERRI
GUZTIETAN**

Gure betaurreko
guztiak **2018**
bildumakoak dira

www.multioplicasgipuzkoa.com



ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENTERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 05 22 • EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan